*“c) Adoptar medidas necesarias para asegurarse de que los desalojos que afecten a personas sin recursos para procurarse una vivienda alternativa, sólo se ejecuten después de que haya habido una consulta genuina y efectiva con estas personas y de que el Estado parte haya REALIZADO TODOS LOS PASOS INDISPENSABLES, HASTA EL MÁXIMO DE SUS RECURSOS DISPONIBLES, para que las personas desalojadas tengan una vivienda alternativa, en especial en aquellos casos que involucran a familias, personas mayores, niños/as y/o otras personas en situación de vulnerabilidad”.*

*También EL TS HA DICTADO SENTENCIAS IMPORTANTES COMO LA 4211/2017 que impone el deber del juez de considerar la situación de la familia antes de dictar una orden de desalojo y que esta medida sea proporcionada y razonable, O LA RECIENTE SENTENCIA 1263/2018 que rompe con una práctica jurisprudencial anterior y entiende por primera vez que los tratados sobre Derechos Humanos , en particular aquellos que crean órganos internacionales de control, son Derecho Español si nuestro país se vincula a ellos y deben ser cumplidos y sus DICTÁMENES SON BASE SUFICIENTE PARA FUNDAMENTAR, CUANDO PROCEDA, LA*

*ADMINISTRAZIOAREN ONDARE ERANTZUKIZUNA (gure kasuan, Eusko Jaurlaritza) FUNTSATZEKO, HALA DAGOKIONEAN, funtzionamendu okerragatik eta haietatik funtsezko eskubide eta askatasunak urratu direla ondorioztatzen denean.*

*RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL DE LA ADMINISTRACIÓN(en nuestro caso, Gobierno Vasco) por mal funcionamiento y de ello se derive la violación de derechos y libertades fundamentales.*

*HIRUGARRENA.- DRAMA SOZIAL HONEN ARRAZOIAK, zeinaren erruz gero eta ugariagoak diren gizarte kolektibo batzuek etxebizitza duin baterako sarbidea izatea eragozten baita (Konstituzioko 47. artikulua eta Euskal Etxebizitza Legeko 8. eta 9. artikuluak), hiru dira nagusiki:*

*TERCERO.- LAS CAUSAS DE ESTE DRAMA SOCIAL, que está impidiendo que colectivos sociales cada vez más numerosos no puedan tener acceso a una vivienda digna (artículo 47 de la Constitución y artículos 8 y 9 de la Ley de Vivienda Vasca), son principalmente tres:*

*1. Eusko Jaurlaritzaren edo Udalen GIZARTE ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN PARKE ASKIEZA, eskaria eta gero eta ugariagoa den eskatzaile kopurua estaltzeko, ETXEBIDEREN etxebizitzetan 62.000 eskatzaile baitaude izen emanda eta 10.000 ETXEGINTZAN.*

*1. EL INSUFICIENTE PARQUE DE VIVIENDAS DE ALQUILER SOCIAL del Gobierno Vasco o de los Ayuntamientos, para cubrir la demanda y el aumento de solicitantes, que alcanza para las viviendas de ETXEBIDE, una cifra de 62.000 inscritos y 10.000 en ETXEGINTZA.*

*2. ALOKAIRU PREZIOEN IGOERA MERKATU PRIBATUAN. Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren arabera, EAEn alokairuaren batez besteko prezioa 983 eurokoa da. Hala, Gasteizen 806 eurokoa da, Bizkaian 970 eurokoa eta Gipuzkoan 1130 eurokoa. Horien artean Donostiako Udalerria nabarmentzen da 1.300 eurotik gorako batez besteko batekin. Prezio horien aurrean, egoera ahulenean diren kolektiboentzat ezinezkoa da kuotak ordaintzea, nahiz eta beren ordainketan laguntzeko hilean 250 euro jaso EPO edo GLL laguntzen bidez.*

*2. EL INCREMENTO DE LOS PRECIOS DEL ALQUILER EN EL MERCADO PRIVADO. El precio medio del alquiler en la CAV según el Observatorio Vasco de la Vivienda es de 983 euros, siendo de 806 euros en Gasteiz, de 970 euros en Bizkaia y de 1130 euros en Gipuzkoa, destacando el Municipio de Donostia con una media de más de 1.300 euros, precios que para los colectivos más vulnerables, hace imposible pagar las cuotas aunque se perciban la P.C.V o la P.E.V de 250 euros mensuales para ayuda de su pago.*

*3. HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN KOPURU HANDIEGIA, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren arabera 69.231 baitira EAEn. Horietatik, Euskadin 34.466 lirateke eta Donostiako udalerrian 4.000 inguru, hutsik dauden eta etxebizitza hutsen dinamizazio programen barnean mobiliza daitezkeen etxebizitzak.*

*3. EL EXCESIVO NUMERO DE VIVIENDAS VACÍAS, que el propio Observatorio Vasco de la Vivienda cifra en 69.231 a nivel de la CAV, de ellas 34.466 viviendas deshabitadas en Euskadi, y de cerca de 4.000.en el municipio de Donostia que resultarían ya potencialmente movilizables para los programas de dinamización de la vivienda deshabitada.*

*Hutsik dauden etxebizitza askoren kasuan ez da betetzen horien bizitegi erabilera helburua eta negozio modura bideratzen dira apartamentu turistiko gisa. Horietako % 60 klandestinoak dira, Lehiaren Merkatuko Batzorde Nazionalak*

*Muchas de las viviendas deshabitadas no están cumpliendo el objetivo de su uso residencial y se destinan como negocio como apartamentos turísticos, de los cuales un 60% son clandestinos como reconoce la Comisión*

*bere txostenean aitortzen duen moduan.*

*LAUGARRENA.- Herritarren plataforma honetan dakigunez, etxegabetutako familia horietako asko inolako babesik gabe kanporatu dira eta haien egoera ekonomiko eta familiakoa ezagutu gabe, ez haiek kaleratzeko agindua ematen duten Epaileen aldetik, ezta administrazioen aldetik ere, bereziki gertuenaren aldetik, hots, bizi diren udalerriko UDALAREN aldetik, izan ere, lehen aipatutako LANKIDETZA HITZARMENA ez da aplikatzen udalerri horietako gehienetan eta, arrazoi hori dela medio, alokairuaren edo Hipoteka Exekuzioaren ondorioz etxegabetzeko eskariak jasotzen dituztenean, Epaileek ez dute jakiten alde demandatuak GIZARTE EGOERA AHULEAN ote dauden.*

*Hitzarmenaren arabera, udalerriko Gizarte Zerbitzuek igorri behar dute egoera ahul horri buruzko txostena. Kontua da HITZARMEN horrek, 2013an sinatu zenetik, ez duela funtzionatzen Udal gehienetan, eta zehazki gurean. Horren ondorioz, egoera ahulean diren familia unitate horiei, etxegabetze data bat dutenak, ez zaie aitortu Nazio Batuen NAHITAEZKO IRIZPENEAN agertzen den eskubidea, zeinaren arabera, administrazio publikoei bizitegi irtenbide bat bermatzen baitzaie eta, aldi berean, epaileak etxegabetze datarik ez ipintzera behartzen baitira, bizileku irtenbide horren berri egiaz izan arte.*

*Donostiako KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS Herritarren Plataformak hemen deskribatutako gertakariak oinarritzat hartuz, udal taldeek aipatu plataformak eskatuta, aurkezten dugu hurrengo*

*ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*LEHENA.- Udalbatzak eskatzen die Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari, Eusko Jaurlaritzari eta EUDEL euskal udalerrien elkarteari jarrai dezatela FAMILIAKO ETXEBIZITZATIK KALERATZEAREN ONDORIOZ BALIZKO EGOERA AHULAK HAUTEMATEKO NEURRI SOZIALA HARTU*

*Nacional del Mercado de la Competencia en su informe.*

*CUARTO.- Esta plataforma ciudadana tenemos constancia de que muchas de estas familias desahuciadas lo han sido en la más absoluta indefensión y sin conocimiento de su situación económica y familiar, tanto por parte de los Jueces que ordenan los lanzamientos, como por las administraciones, en especial la más cercana, que es el AYUNTAMIENTO en el que residen, porque el CONVENIO DE COLABORACIÓN anteriormente citado, no funciona en la mayoría de estos municipios y por este motivo, los Jueces no conocen, cuando reciben las demandas de desahucio por alquiler o por Ejecución Hipotecaria si los demandados se encuentra en situación de VULNERABILIDAD SOCIAL.*

*Según el Convenio, son los Servicios Sociales del municipio los que tienen que emitir dicho informe de vulnerabilidad. El hecho de que, desde su firma en 2013, este CONVENIO no funcione en la mayoría de los ayuntamientos, y en concreto en el nuestro, esto conlleva el que a estas unidades familiares vulnerables con fecha de desahucio no se les haya reconocido el derecho expuesto en el DICTAMEN OBLIGATORIO de Naciones Unidas a que las administraciones publicas les garanticen una salida habitacional , y al mismo tiempo también obliga a los Jueces a no decretar la fecha del desahucio hasta no tener la certeza de esa salida habitacional.*

*En base a los hechos hasta aquí descritos por la Plataforma Ciudadana KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS de Donostia, los grupos municipales a instancias de la misma, presentamos la siguiente*

*Declaración Institucional*

*PRIMERO.- El Ayuntamiento Pleno solicita al Consejo General del Poder Judicial, al Gobierno vasco, y a la Asociación de municipios vascos EUDEL, a que continúen e implementen todas las medidas necesarias para hacer efectivo el Convenio de junio del 2013 para la DETECCIÓN DE SUPUESTOS*

*AHAL IZATEKO 2013ko ekaineko Hitzarmena betearazteko beharrezkoak diren neurriak hartzen eta horiek txertatzen, egokitu ditzatela 1/2000 Legea aldatzeko ekainaren 11ko 5/2018 Legean gaineratutako xedapen berrietara, bereziki Udal honetako gizarte zerbitzuei etxebizitza jakin batean bizi direnak kaleratzea agintzen duten ebazpenen prozeduren berri emateari dagokionez.*

*DE VULNERABILIDAD CON OCASIÓN DEL LANZAMIENTO DE VIVIENDA FAMILIAR PARA POSIBILITAR LA ADOPCIÓN DE MEDIDAS DE CARÁCTER SOCIAL, que se adecuen a las nuevas disposiciones introducidas por la Ley 5/2018, de 11 de junio de Modificación de la ley 1/2000, en particular, en lo que concierne a la comunicación a los servicios sociales de este Ayuntamiento de aquellos procedimientos en los que la correspondiente resolución señale el lanzamiento de una vivienda de quienes la ocupen*

*BIGARRENA.- Udalbatzak berretsi egiten du 2015eko irailean onartutako mozioa, zeinaren bidez Donostia etxegabetzerik gabeko hiritzat jotzen baita.*

*SEGUNDO.- El Ayuntamiento Pleno se ratifica en la moción aprobada en el mes de septiembre de 2015 en la que se declara a Donostia / San Sebastián ciudad Libre de Desahucios.*

*HIRUGARRENA.- Udalbatzak administrazio eskudunei eskatzen die aplika dezatela Nazio Batuen EESK Batzordearen NAHITAEZKO IRIZPENEAN adierazitakoa, alegia, administrazioek behar diren neurriak hartuko dituztela etxegabetze eskaera bat jaso duten kolektibo zaurgarriek bizitegi alternatiba bat bermaturik izan dezaten.*

*TERCERO.- El Ayuntamiento Pleno solicita a las administraciones competentes que apliquen lo expuesto en el DICTAMEN OBLIGATORIO del Comité DESC de Naciones Unidas consistente en garantizar cuantas medidas sean necesarias por parte de las distintas administraciones, para que los colectivos vulnerables con demandas de desahucio tengan garantizada una alternativa habitacional.*

*LAUGARRENA.- Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Udal honekin koordina dezala bi erakunde horiek dituzten etxebizitza sozialen parkeen kudeaketa, arauzkoak baino plaza gehiago lortze aldera, modu kolektiboan eta aldi baterako erabiltzekoak diren GIZARTE LARRIALDIKO ETXEBIZITZAK oinarritzat hartuta, bai eta Donostian gizarte alokairuko etxebizitzen kopurua areagotze aldera ere.*

*CUARTO.- El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno vasco que coordine con este Ayuntamiento la gestión de sus respectivos parque de viviendas sociales con el fin de incrementar el número de plazas de la dotación reglamentaria en base a su población de las VIVIENDAS DE EMERGENCIA SOCIAL, de uso colectivo y temporales así como a incrementar el número de viviendas de alquiler social en Donostia / San Sebastián.*

*BOSGARRENA.- Udalbatzak dei egiten die administrazio eskudunei Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea oinarritzat hartuz, hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko beharrezkoak diren neurriak (Garapen Araudia, etxebizitzen erregistroa, eta abar) har ditzan, hala neurri pizgarri modura, nola hutsik dauden etxebizitzen gaineko kanona aplikatuz.*

*QUINTO.- El Ayuntamiento Pleno insta a las administraciones competentes a que con base a la ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda adopten las medidas necesarias (Reglamento de Desarrollo, Registro de vivienda…) para movilizar las viviendas vacías tanto con medidas de incentivo como mediante la aplicación del Canon de la vivienda*

*deshabitada.*

*SEIGARRENA.- Udalbatzak administrazio eskudunei eskatzen die azter dezatela alokairuen erreferentziazko indizeak finkatzeko aukera, beste hiri batzuetan -esate baterako, Parisen eta Berlinen- aplikatzen den moduan, neurri pizgarriak nahiz inposiziozkoak erabiliz, alokairuaren prezioen igoera hori geldiarazte aldera.*

*SEXTO.- El Ayuntamiento Pleno solicita a las administraciones competentes que estudien la posibilidad de fijar índices de referencia de alquileres, como ya se están aplicando en ciudades como París, Berlín, etc, utilizando tanto medidas incentivadoras como impositivas, para frenar dicha escalada de precios del alquiler.*

*ZAZPIGARRENA.- Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurtengo uztailean onartutako Etxebizitza Turistikoei buruzko Dekretua alda edo gainera dezala, aukera emanez auzotarren komunitateari beren komunitatean etxebizitza turistikoei betoa ipintzeko 3/5ko gehiengoarekin, Estatuko gainerako eremuetan proposatzen den moduan, eta ez guztien adostasunarekin, dekretu horretan jasotzen den moduan”. ====================================*

*SÉPTIMO.- El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno Vasco a modificar o incorporar en el Decreto sobre Viviendas Turísticas aprobado en julio de este año, dando a las comunidades de vecinos la posibilidad de vetar a las viviendas turísticas en su comunidad por mayoría de 3/5, tal y como se propone hacer en el resto del Estado, y no por unanimidad como recoge dicho decreto”. ====================================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita hamarrean.

ALKATEAK O. E. /.

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a treinta de noviembre de dos mil dieciocho.

---------------

**MOZIOAK**

**MOCIONES**

**II.1**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**6. Mozio arrunta, IRABAZI taldeak aurkeztua, Intxaurrondoko babes akustikoari buruzkoa.**

“Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia Udal Taldeko Bozeramaileak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoko 98. artikuluaren arabera, hurrengo MOZIOA aurkeztu du OSOKO BILKURAN EZTABAIDA dadin, Intxaurrondoko babes akustikoari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Zaratak eragin nabaria du bizi-kalitatearen mailan eta, aldi berean, eragin kaltegarriak sorraraz ditzake gizakiaren osasun, portaera eta jardueran. Haren eragin psikologiko eta sozial negatiboak egiaztatuta, ezinbestekoa da hirian zarata-maila handiak ekiditeko neurriak hartzea.

Zarata horren eragileak anitzak dira. Haatik, Donostiaren kasuan, soinu-giroa hobetzeko ekintza-planean eta zarataren mapa estrategikoetan hirian zarataren jatorri diren iturri nagusi jakin batzuk adierazten dira: ibilgailuen eta trenaren trafikoa eta industria-jarduna; era berean, aisiatik eratorritako hiriko gune jakin batzuetan sorrarazten den zarata gogorarazi behar da, Alde Zaharrean jaso den eran.

Trafikoko azpiegiturei dagokienez, hauek dira hirian gehien eragiten dutenak:

• AP-8 (Kantauriko autopista), GI-20 (Donostiako saihesbidea), GI-11 (N-I eta GI-20 errepideen arteko lotura), GI-41, GI-636, GI-2640, GI-2132, GI-2137, GI-3401 errepideak eta Donostiako bigarren gerrikoa; bide-ardatz handi modura definitzen direnak, izan ere, guztietan egunean 8.000 ibilgailuko batez

**6. Moción ordinaria, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre protección acústica en Intxaurrondo.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre protección acústica en Intxaurrondo.

JUSTIFICACIÓN

El ruido incide sustancialmente en el nivel de calidad de vida y, al mismo tiempo, puede provocar efectos nocivos sobre la salud, el comportamiento y actividades del ser humano. Comprobados sus efectos psicológicos y sociales negativos, es preciso tomar medidas para evitar los niveles de ruido altos en la ciudad.

Los agentes que provocan este ruido son diversos, si bien en Donostia el plan de acción de mejora del ambiente sonoro y los mapas estratégicos del ruido apuntan a las fuentes principales de origen del ruido en la ciudad: trafico viario y ferroviario y actividad industrial; es preciso, recordar de igual modo el ruido provocado en puntos concretos de la ciudad derivado del ocio, como el que se ha constatado en la Parte Vieja.

En cuanto a infraestructuras de tráfico, las principales que afectan a la ciudad son:

• Las carreteras AP-8 (autopista del Cantábrico), GI-20 (variante de Donostia-San Sebastián), GI-11 (enlace de N-I con la GI-20), GI-41, GI-636, GI-2640, GI-2132, GI-2137, GI-3401 y segundo cinturón de San Sebastián; que se definen como grandes ejes viarios, ya que superan todas ellas una intensidad media

besteko intentsitatea gainditzen da (urtean 3.000.000 zirkulazio).

• Trenbide-trafikoa, ADIF eta ETS lineatakoa, horiek ere tren-ardatz handitzat jotzen direnak, izan eren urtean 30.000 zirkulazio gainditzen da horietan.

Kutsadura akustikoak eragin kaltegarriak ditu pertsonen osasunean. Joan den urrian, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), Europako zarata-giroari buruzko estrategia-ildoei buruzko bere azken txostenean, Europan zarataren eraginpean uneoro dauden pertsonak 100 milioi zirela adierazten zuen, hau da, bost europarretik bat osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen zaraten eraginpean dago uneoro. Halaber, ikerketa zientifikoek agerian uzten dutenez, zaratak, handiak, eragina izan dezake arteria-presioan eta hipertentsioan, eta bihotzeko nahiz bihotz-hodietako gaixotasunak sorraraz ditzake.

Zarata-emisioen iturri modura aipatutako espazioetatik hurbileko zonaldetan babes akustikoa areagotu ahal izateko neurriak txertatzeko urratsak egin diren arren, badira esku-hartzerik gabe dauden hiriko zenbait zonalde. Zaratari eta hark osasunean duen eraginari buruzko ikerketa ezberdinen arabera, babes akustikoa lehentasunezko kontua izan behar da gaixotasunak ekidin eta jendearen bizitza hobetzeari begira. Auzotarren elkarteek eta partikularrek behin eta berriz eskatu dute hirian babes akustikoko mailak areagotu daitezela.

Hori dela eta, aurkezten dugu hurrengo:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari GI-20

diaria de vehículos de 8.000 vehículos/día (3.000.000 de circulaciones/año).

• Tráfico ferroviario, de las líneas de ADIF y también ETS, también considerados como grandes ejes ferroviarios por superar las 30.000 circulaciones al año.

La contaminación acústica tiene efectos nocivos sobre la salud de las personas. El pasado mes de octubre, la Organización Mundial de la Salud (OMS) en su último informe sobre líneas estratégicas relativas al ruido ambiental en Europa cuantificaba en 100 millones el número de personas expuestas de forma continuada al ruido en Europa, es decir, uno de cinco europeos están expuestos de forma continua a ruidos que pueden ser perjudiciales para su salud. Asimismo, estudios científicos revelan que el ruido de forma agravada puede afectar a la presión arterial, la hipertensión, y provocar enfermedades cardíacas y cardiovasculares.

Se han dado pasos a la hora de implementar medidas que permitan aumentar la protección acústica de las zonas cercanas a los citados espacios como fuentes de emisión de ruidos pero existen zonas en la ciudad pendientes de actuación. A tenor de diferentes estudios sobre el ruido y su repercusión sobre la salud, la protección acústica ha de ser una prioridad para evitar enfermedades y mejorar la vida de la gente. Asociaciones de vecinos y particulares han solicitado de forma reiterada incrementar las medidas de protección acústica en la ciudad.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de

saihesbidearen babes akustikoa hobetu dezan Donostiako Udal Barrutian.

Gipuzkoa a mejorar la protección acústica de la variante GI-20 a su paso por el término municipal de Donostia/San Sebastián.

2. Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari ETS linean babes akustikoa hobetu dezan Donostiako Udal Barrutian.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Vasco a mejorar la protección acústica en la línea de ETS a su paso por el término municipal de Donostia/San Sebastián.

3. Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Estatuko Gobernuari Renfe/ADIF linean babes akustikoa hobetu dezan Donostiako Udal Barrutian.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno del Estado a mejorar la protección acústica en la línea de Renfe / ADIF a su paso por el término municipal de Donostia/San Sebastián.

Donostian, 2018ko azaroaren 5ean

Donostia a 5 de Noviembre de 2018

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D.ª Pilar Arana Pérez y D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU :**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**6. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita bian izan zuen ohiko osoko bileran, IRABAZI taldeak aurkeztutako mozio arrunt hau onartu zuen, Intxaurrondoko babes akustikoari buruzkoa, EH BILDU taldeak aurkeztu eta Udalbatzak onartu egin zituzten 2 zuzenketa ere eginda dituena. Lehenengo zuzenketak erabaki zatiko bigarren paragrafoa aldatzen du eta bigarrenak erabaki zatiko hirugarren puntua. Horrenbestez, hauxe da azkenean onartu zen Testua:

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintidós de noviembre de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre protección acústica en Intxaurrondo, que incorpora dos enmiendas aprobadas, presentadas por el Grupo EH BILDU, la primera de modificación del segundo punto de la parte dispositiva y la 2ª de modificación del tercer punto de la parte dispositiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Zaratak eragin nabaria du bizi-kalitatearen mailan eta, aldi berean, eragin kaltegarriak sorraraz ditzake gizakiaren osasun, portaera eta jardueran. Haren eragin psikologiko eta sozial negatiboak egiaztatuta, ezinbestekoa da hirian zarata-maila handiak ekiditeko neurriak hartzea.*

*“El ruido incide sustancialmente en el nivel de calidad de vida y, al mismo tiempo, puede provocar efectos nocivos sobre la salud, el comportamiento y actividades del ser humano. Comprobados sus efectos psicológicos y sociales negativos, es preciso tomar medidas para evitar los niveles de ruido altos en la ciudad.*

*Zarata horren eragileak anitzak dira. Haatik, Donostiaren kasuan, soinu-giroa hobetzeko ekintza-planean eta zarataren mapa*

*Los agentes que provocan este ruido son diversos, si bien en Donostia el plan de acción de mejora del ambiente sonoro y los mapas*

*estrategikoetan hirian zarataren jatorri diren iturri nagusi jakin batzuk adierazten dira: ibilgailuen eta trenaren trafikoa eta industria-jarduna; era berean, aisiatik eratorritako hiriko gune jakin batzuetan sorrarazten den zarata gogorarazi behar da, Alde Zaharrean jaso den eran.*

*Trafikoko azpiegiturei dagokienez, hauek dira hirian gehien eragiten dutenak:*

*AP-8 (Kantauriko autopista), GI-20 (Donostiako saihesbidea), GI-11 (N-I eta GI-20 errepideen arteko lotura), GI-41, GI-636, GI-2640, GI-2132, GI-2137, GI-3401 errepideak eta Donostiako bigarren gerrikoa; bide-ardatz handi modura definitzen direnak, izan ere, guztietan egunean 8.000 ibilgailuko batez besteko intentsitatea gainditzen da (urtean 3.000.000 zirkulazio).*

*Trenbide-trafikoa, ADIF eta ETS lineatakoa, horiek ere tren-ardatz handitzat jotzen direnak, izan eren urtean 30.000 zirkulazio gainditzen da horietan.*

*Kutsadura akustikoak eragin kaltegarriak ditu pertsonen osasunean. Joan den urrian, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), Europako zarata-giroari buruzko estrategia-ildoei buruzko bere azken txostenean, Europan zarataren eraginpean uneoro dauden pertsonak 100 milioi zirela adierazten zuen, hau da, bost europarretik bat osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen zaraten eraginpean dago uneoro. Halaber, ikerketa zientifikoek agerian uzten dutenez, zaratak, handiak, eragina izan dezake arteria-presioan eta hipertentsioan, eta bihotzeko nahiz bihotz-hodietako gaixotasunak sorraraz ditzake.*

*Zarata-emisioen iturri modura aipatutako espazioetatik hurbileko zonaldetan babes akustikoa areagotu ahal izateko neurriak txertatzeko urratsak egin diren arren, badira esku-hartzerik gabe dauden hiriko zenbait zonalde. Zaratari eta hark osasunean duen eraginari buruzko ikerketa ezberdinen arabera, babes akustikoa lehentasunezko kontua izan behar da gaixotasunak ekidin eta jendearen*

*estratégicos del ruido apuntan a las fuentes principales de origen del ruido en la ciudad: trafico viario y ferroviario y actividad industrial; es preciso, recordar de igual modo el ruido provocado en puntos concretos de la ciudad derivado del ocio, como el que se ha constatado en la Parte Vieja.*

*En cuanto a infraestructuras de tráfico, las principales que afectan a la ciudad son:*

*Las carreteras AP-8 (autopista del Cantábrico), GI-20 (variante de Donostia-San Sebastián), GI-11 (enlace de N-I con la GI-20), GI-41, GI-636, GI-2640, GI-2132, GI-2137, GI-3401 y segundo cinturón de San Sebastián; que se definen como grandes ejes viarios, ya que superan todas ellas una intensidad media diaria de vehículos de 8.000 vehículos/día (3.000.000 de circulaciones/año).*

*Tráfico ferroviario, de las líneas de ADIF y también ETS, también considerados como grandes ejes ferroviarios por superar las 30.000 circulaciones al año.*

*La contaminación acústica tiene efectos nocivos sobre la salud de las personas. El pasado mes de octubre, la Organización Mundial de la Salud (OMS) en su último informe sobre líneas estratégicas relativas al ruido ambiental en Europa cuantificaba en 100 millones el número de personas expuestas de forma continuada al ruido en Europa, es decir, uno de cinco europeos están expuestos de forma continua a ruidos que pueden ser perjudiciales para su salud. Asimismo, estudios científicos revelan que el ruido de forma agravada puede afectar a la presión arterial, la hipertensión, y provocar enfermedades cardíacas y cardiovasculares.*

*Se han dado pasos a la hora de implementar medidas que permitan aumentar la protección acústica de las zonas cercanas a los citados espacios como fuentes de emisión de ruidos pero existen zonas en la ciudad pendientes de actuación. A tenor de diferentes estudios sobre el ruido y su repercusión sobre la salud, la protección acústica ha de ser una prioridad para evitar enfermedades y mejorar la vida de*

*bizitza hobetzeari begira. Auzotarren elkarteek eta partikularrek behin eta berriz eskatu dute hirian babes akustikoko mailak areagotu daitezela.*

*Hori dela eta, aurkezten dugu hurrengo:*

*MOZIO ARRUNTA*

*1. Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari GI-20 saihesbidearen babes akustikoa hobetu dezan Donostiako Udal Barrutian.*

*2. Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari eta ETSri, ETS linean babes akustikoa hobetu dezan Donostiako Udal Barrutian.*

*3. Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Estatuko Gobernuari eta ADIFi, Renfe/ADIF linean babes akustikoa hobetu dezan Donostiako Udal Barrutian". ====================================*

*la gente. Asociaciones de vecinos y particulares han solicitado de forma reiterada incrementar las medidas de protección acústica en la ciudad.*

*Por este motivo, presentamos la siguiente:*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a mejorar la protección acústica de la variante GI-20 a su paso por el término municipal de Donostia/San Sebastián.*

*2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Vasco y a ETS a mejorar la protección acústica en la línea de ETS a su paso por el término municipal de Donostia/San Sebastián.*

*3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno del Estado y a ADIF a mejorar la protección acústica en la línea de Renfe / ADIF a su paso por el término municipal de Donostia/San Sebastián". ====================================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita zazpian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintisiete de noviembre de dos mil dieciocho.

ALKATEAK O. E. /".

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso".

---------------

**7. Mozio arrunta, IRABAZI taldeak aurkeztua, Uliako ingurumena zaindu eta itsaslabarra babesteari buruzkoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia Udal Taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoko 98. artikuluaren arabera, hurrengo MOZIOA aurkeztu du OSOKO BILKURAN EZTABAIDA dadin, Uliako ingurumena zaindu eta itsaslabarren garbiketari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Deba-Zumaiako biotopoaren itsaslabarrean duela aste gutxi grabatutako bideo bat aski hedatu da herritarren eta hedabideen artean. Bideoan itsaslabarretako itsas arrasean aurki dezakegun plastiko kopuru izugarria ikus daiteke, eta haren hedapen mediatikoak gizartean horri dagokionez nabaritzen den kezka eta egonezina islatzen du.

Donostian badugu babestutako eremu natural bat, Uliako Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) hain zuzen. Eremu horretan Deba-Zumaia biotopoan diren ezaugarri morfologikoen antzekoak daude eta, batez ere, kutsadura-arrisku beraren eraginpean dago, itsasoak ekarritako plastikoak eraginda. Hau da, aipatu bideoan deskribatzen dena Uliako KBE eremuaren itsas arrasean ere gerta daiteke.

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Uliako Kontserbazio Bereziko Eremuan ingurumena zaindu eta garbi dadila ziurta dezan, dagozkion instituzioekin elkarlanean.

Donostian, 2018ko azaroaren 5ean

**7. Moción ordinaria, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre la vigilancia ambiental y la limpieza de los acantilados de Ulia.**

“Loïc Alejandro, concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre la vigilancia ambiental y la limpieza de los acantilados de Ulia.

JUSTIFICACIÓN

Un vídeo grabado hace pocas semanas en los acantilados del biotopo Deba-Zumaia ha tenido una difusión importante en la ciudadanía y en los medios. El video muestra la impresionante cantidad de plásticos que podemos encontrar en la rasa mareal de los acantilados, y su gran difusión mediática refleja la preocupación y la desazón que se palpa en la sociedad al respecto.

En Donostia tenemos una zona natural protegida que es la Zona de Especial Conservación (ZEC) de Ulia. Esa zona presenta características morfológicas similares al biotopo Deba-Zumaia y sobre todo está expuesta a los mismos riesgos de contaminación por plásticos traídos por el mar. Es decir que lo que se describe en el vídeo en cuestión podría pasar en la rasa mareal del ZEC de Ulia.

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Ayuntamiento en Pleno de Donostia/San Sebastián insta a la Diputación Foral de Guipúzcoa a asegurar la vigilancia medioambiental y la limpieza de la Zona de Especial Conservación de Ulia, en colaboración con las instituciones pertinentes.

Donostia, a 5 de Noviembre de 2018

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia“.

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU :**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**7. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Iztuetako zubibideari buruzkoa.**

“Talde Popularreko zinegotzi Jose Luis Arrue Pintok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak 2018ko azaroaren 12an izan zuen bileran Iztuetako zubibideaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Biaduktu hau kentzea aurreikusten zen, eta horretarako hainbat ekitalditako aurrekontuetan aurreikuspenak daude, besteak beste, 2019. eta 2020. urteetan.

Gaur egun hartako arku askotan hesiak daude ipinita eta ezin da haietan barna ibili duela denbora batetik hona, segurtasun arrazoiak direla medio, pentsatzen dugu; ez dirudi zentzuzkoa denik iragankorra izan beharko zen egoera bat iraunkor bilakatzea epe ertainera.

Halaber, trenbidearen azpiko pasabidean urtero istripuak izaten dira 2,3 metroko galiboa gainditzen duten furgonetekin. Hura seinaleztatuta badago ere, indartu egin daitekeela uste dugu, esate baterako, Aldakonea eta Mandasko Dukearen ikastetxeen parean beste seinale bat ipinita, edo argidun seinaleren batekin, etab.

Epe laburrera pasabide horretan esku-hartzeren bat burutzea aurreikusten da.

Gaineratu behar da egitura hori joan-etorri handiko zonalde batean lekutzen dela, inguruan haur parke bat, epaitegiak eta kiroldegi bat baitaude.

Batzordean, hesiaren gaineko azalpen batzuk

**II.2.1. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa al viaducto de Iztueta.**

“D. José Luis Arrue Pintó, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público, celebrada el día 12 de Noviembre de 2018, relativa al viaducto de Iztueta.

JUSTIFICACIÓN

Este viaducto tiene prevista su eliminación para lo cual existen previsiones presupuestarias en diversos ejercicios entre ellos 2019 y 2020.

En la actualidad varios de sus arcos están vallados y no se puede transitar por ellos desde hace cierto tiempo, entendemos que por razones de seguridad; no parece razonable que una situación que debería ser transitoria se convierta en permanente a medio plazo.

Asimismo el pasaje viario bajo las vías del tren todos los años tiene varios accidentes de furgonetas que superan el gálibo permito 2,3 m, y que está señalizado, aunque pensamos que se podría reforzar, por ejemplo con otra señal a la altura de los centros escolares de Aldaconea y Duque de Mandas, o con alguna señal luminosa, etc.

Está previsto hacer alguna actuación en breve plazo en este pasaje.

Hay añadir que esta estructura está enclavada en una zona de paso muy transitada, con un parque infantil, los juzgados y un polideportivo en sus inmediaciones.

En Comisión se dieron explicaciones sobre el

eman zituzten, baina oraindik ere badago azpiko bidea hobetu beharra, eta badago hori egiteko modua ere.

Hori dela eta, hauxe da PP taldeak dakarren MOZIOA:

Donostiako Udalak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die aztertzeko Iztuetako trenbidearen azpiko pasabideak zer altuera duen ohartarazteko diren seinaleak hobetzea, beste seinale bat jarrita Mandasko Dukearen eta Aldakonearen arteko bidegurutzean eta argi-seinaleren bat edo jar litekeen begiratuta.

Donostian, 2018ko azaroaren 16an.

José Luis Arrue Pintó,
Talde Popularreko zinegotzia".

vallado, pero no es menos cierto que subsiste la necesidad de la mejora del pasaje viario y ésta es posible.

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que analice la mejora de la señalización que advierte del gálibo del paso bajo las vías de Iztueta, con otra señal en el cruce Duque de Mandas con Aldakonea y con la posibilidad de instalación de la algún elemento luminoso.

En Donostia/San Sebastián, a 16 de Noviembre de 2018

Jose Luis Arrue Pintó
Concejal del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José Luis Arrúe Pintó, D. Loïc Alejandro, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, espaloietan ibiltzen diren bizikletei buruzkoa.**

**II.2.2. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a las bicicletas que circulan por las aceras.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko azaroaren 12an izan zuen bileran espaloietan ibiltzen diren bizikletez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Tarteka-tarteka, Udal Gobernu honek espaloietan ibil eta gatazka iturri dezentekoa sortzen duten txirrinduekin azaltzen duen permisibitateagatik hirian dugun arazoari buruzko kexak eta ekimenak helarazten dizkio gure talde politikoak Udal Gobernuari. Harrapatzeak ere gertatu dira, eta ohikoa da txirrindu zaleak espaloietan barna oinezkoak saihesten ikustea, eta baita haien jarrera gaitzesten duten herritarrei aurre egiten ere.

Gure hirian txirrindua garraiobide modura gero eta gehiago erabiltzen dela egia bada ere, eta beren ibilgailua modu desegokian erabiltzen duten txirrindu zaleak gutxiengoa izan arren, herritarren bide-segurtasunean eragina duen arazo bat da, ustekabekoren bat ikusi edo izan duten herritar askoren integritate fisikoa arriskuan ipiniz.

Gure talde politikoak sarritan eskatu dio Gobernu Taldeari gure hirian txirrindu zaleei eman beharreko prestakuntza eta informazioari dagokionez jarrera aktiboagoa azal dezala, arau-hausteren bat egiten harrapatutakoei bereziki begiratuta. Eta, era berean, Mugikortasuneko Agenteek eta Udaltzaingoek araudiaren aurkako portaeren kontrolean zorrotzago joka dezatela eskatu dugu.

“Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 12 de Noviembre de 2018, relativa a las bicicletas que circulan por las aceras.

JUSTIFICACIÓN

Cada cierto tiempo, desde nuestro Grupo Político hacemos llegar al Gobierno Municipal quejas e iniciativas relativas al problema que tenemos en la ciudad por la permisividad de este Gobierno con las bicicletas que andan por las aceras, y que son fuente de conflicto importante. Se han llegado a registrar atropellos, y son muy frecuentes los episodios de bicicleteros sorteando peatones en las aceras, si no directamente encarándose con aquellos ciudadanos que reprochan estas actitudes.

Si bien es cierto que, cada vez, se produce un mayor uso de la bicicleta como medio de transporte en nuestra ciudad, y los bicicleteros que hacen un uso incorrecto de su vehículo son una gran minoría, no deja de ser un peligro que afecta a la seguridad vial de los ciudadanos, a la integridad física de muchos ciudadanos que han visto, o han padecido algún tipo de susto.

Desde nuestro Grupo Político hemos solicitado al Equipo de Gobierno, en numerosas ocasiones, una mayor proactividad en la formación e información que debe procurarse al conjunto de usuarios de bicicleta en nuestra ciudad, con especial atención a aquellos usuarios que fueran sorprendidos cometiendo alguna infracción. Y hemos solicitado, también, un mayor rigor en el control de aquellos

comportamientos que fueran contrarios a la normativa por parte de los Agentes de Movilidad y de la Guardia Municipal.

Bistan dago PNV–PSE gobernu taldeak kasu gutxi egiten diola bizikletan ibiltzen den zenbait pertsonaren jokabide axolagabeari, eta, itxuraz behintzat, ez diola erremediorik jartzen, nahiz eta zinegotzi eskuordedunak ahaleginak egiten dituen normaltasuna dagoela eta lan egiten dutela jokabide horiei aurre hartu eta kontrolatzeko. Errealitateak, ordea, oso bestelako gauza bat erakusten du.

Es evidente que continúan haciendo caso omiso el Equipo de Gobierno PNV–PSE a las conductas irresponsables de las personas usuarias de bicicleta, sin poner remedio aparente a esta situación, pese a los esfuerzos de la Concejal Delegada por aparentar normalidad y trabajo en la prevención y el control de estas actitudes; posición muy alejada de la realidad.

Egoera datuekin erakuste aldera, esan dezagun iaz, urte guztian (2017an), 150 isun jarri zizkietela bizikleta zaleei; eta 2018ko hamar hilabete hauetan guztietan 101 isun besterik ez duela jarri Mugikortasun Departamentuak bizikleta zaleek egindako arau-hausteak direla eta. Horren aldean, orain aste asko ez dela, motordun ibilgailuen abiadura gehiegizkoen atzetik ibiltzen den eskuko radarrak, 636 gidari 'harrapatu' zituen astebetean. Horrek garbi erakusten du ez dela arau-hauste guztien kontra berdin jokatzen.

Para reflejar con datos la situación, en todo el año pasado (2017) se pusieron 150 sanciones a conductores de bicicletas, en doce meses. En los diez meses enteros que llevamos de 2018, el Departamento de Movilidad ha interpuesto apenas 101 sanciones por infracciones cometidas por bicilceteros. A modo de ejemplo, hace apenas unas semanas, el radar móvil que persigue los excesos de velocidad de vehículos a motor “cazó” a 636 conductores en apenas una semana. Lo que da a entender que no se persigue con el mismo rigor unos tipos de infracciones que otros.

Gertatzen dena da, ordea, bizikleta zaleak nahi duten bezala dabiltzala espaloietan, hala ibiltzen uzten dietelako gure udal agintariek; eta oinezkoak, berriz, desesperatuta, kexatu eta inork ere ezer egiten ez duelako. Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

La realidad es que muchos usuarios de bicicletas siguen campando a sus anchas por la ciudad, con total permisividad de nuestras autoridades municipales, y la desesperación de los peatones, que siguen quejándose sin que se haga nada para evitarlo, por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari jarraibide batzuk emateko Mugikortasuneko eta Udaltzaingoko agenteei bizikleta zaleak zorrotzago kontrolatu eta, ohi duten bezala, espaloiak hartzen ez uzteko.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que den instrucciones a los Agentes de Movilidad y de la Guardia Municipal para exigir un mayor control y evitar que las bicicletas invadan las aceras de la ciudad, como es costumbre.

Donostian, 2018ko azaroaren 16an.

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

En Donostia/ San Sebastián, a 16 de Noviembre de 2018

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK:15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, komun publikoei buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko azaroaren 12an izan zuen bileran komun publikoez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.3. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a evacuatorios públicos.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 12 de Noviembre de 2018, relativa a evacuatorios públicos.

JUSTIFICACIÓN

Kalean joan, komun publiko bat behar izan eta erabili ezin izatea askotan entzungo genuen komentario bat izango da seguruenera.

La de colmar la necesidad de utilizar un baño público cuando se transita por la calle, y no poder hacerlo, es un comentario que habremos escuchado en diversas ocasiones.

Gaur egun hirian hogeita hamar komun publiko inguru daude. Herritar askok hirian komun publiko gehiago ipintzeko eskatzen dute, eta egun daudenen kokapena hobetu ezagutaraz dadila. Berez, duela urte eta erdi inguru, gobernu taldeak hirian dauden komun publikoak hobeto seinaleztatzeko moduari buruzko ikerketa bat burutu zuen, haiek hobeto erabili daitezen.

En la actualidad existen en la ciudad unos treinta evacuatorios públicos. Muchos ciudadanos piden que se instalen más baños públicos en la ciudad, y conocer mejor el emplazamiento de los ya existentes. De hecho, hace aproximadamente un año y medio, el Equipo de Gobierno anunció su intención de llevar a cabo un estudio sobre cómo señalizar mejor los baños públicos existentes en la ciudad con el fin de poder hacer un mejor uso de ellos.

Alde horretatik, Turismo eta Bide Publikoen eremuek adierazleak zein lekutan ipini zehazteko lan bat burutuko zutela iragarri zen, turismo-mapetan ere haiek barneratzeko aukerarekin.

En este sentido, se anunció que las áreas de Turismo y de Vías Públicas iban a llevar a cabo un trabajo para concretar en qué lugares colocar indicadores, que podrían incluirse también en los mapas turísticos.

Harrezkero denbora asko joan da, eta ez dugu beste ezer jakin lan horiei buruz, ezta haien ondorioei buruz ere, eta ezinbestekotzat jotzen dugu gobernuak gai honen kudeaketarekin lotutako ikerketa egin dezan.

Ha pasado mucho tiempo, y no hemos conocido nada más en relación a la realización de estos trabajos ni de sus conclusiones, y vemos la necesidad e inquirir al Gobierno en relación a la gestión de este asunto.

Lehen esandako batzordeak orain hurrena izan zuen bileran, zinegotzi eskuordedunak esan zuen ematen zen informazioa —turismoko mapean— zela egokiena, eta nahikoa baino gehiago iruditzen zitzaiola kaleetan diren zutikako seinaleak, informazio gehiago jartzeak jendea nahastu egingo zuela eta.

En la pasada Comisión, el Concejal Delegado señaló que la información que se ofrecía, en mapas turísticos, era lo más adecuado; y consideraba más que suficiente la señalización vertical existente, porque -decía- poner más señales confundiría a la gente.

Bestalde, haur parkeetako erabiltzaileek behin eta berriz egiten dituzte gero eta parke gehiago komun publikoz hornitzeko eskaerak, pertsonen metaketarako gune garrantzitsuak izaki, izan ere, sarritan, zonaldeko ostalaritzako lokaletako komun pribatuak erabili behar izaten dituzte,

